

## INDARREZ BETERIKO TXINPARTAK

- 1) Gune honetxek bete egiten du  
beti egon dena hutsa  
auzotarrena beti helduta  
hortxe izan du laguntza  
kultur aldetik, aisi aldetik  
beti bi hauexei bultza  
Bilboko Errekalde auzoko  
bilgune dugu Kukutza
- 2) Hamasei urte Kukutza bata  
okupatua izan zela  
hiru hilabete iraun zituen  
urtaro batek bezela  
indarra bazen, grina ere bai  
eta gogoia itzela  
Kukutza bia okupatzea  
beti buruan zutela
- 3) Bi urte behar izan zituzten  
beste gune bat hartzeko  
hainbat arazo, hainbat komeri  
udaletxea tarteko  
bi hilabete izan zituzten  
desalojoa emateko  
honen indarra amaitu zenik  
ez du ba inork usteko?
- 4) Urte berean okupatua  
Kukutza hirugarrena  
Cerezo lantegia izan zena  
hutsik zuena barrena  
leku handia gogo handia  
a zer nolako eszena  
azken aldian martxan jarri den  
makroproiektu onena
- 5) Fabrika huts bat izatetikan  
jaio zen "Sortze Frabrika"  
autogestioz funtzionatuaz  
hornitu gabe patrika  
sorkuntzarako nahia zuenak  
nahitaezkoa zen zita  
ideia desberdinak elkartuz  
osatu zuten zatika
- 6) Aste osoko ekimenekin  
zuten agenda beterik  
zirku taldea, jantoki, barra  
ez zen falta libururik  
serigrafia, arte martzialak  
bertan zuten denetarik  
Euskal Herri osoan ez dago  
holako kultur gunerik

7) Bi mila eta hamaikagarren

irailak hogeita bata

Euskal Herrian bueltan zebilen

sekulako zalaparta

batzuk barrura besteak ihes

herria zen protestaka

betiko legez herrian hitza

zuten atzean lagata

8) Orain kukutza laugarrengoa

dabil burutan bueltaka

egonezina ta amorrua

asmo berriei tiraka

auzo horretan oraindik dago

baretu gabe zarata

itzaldu zuten su hori baina

txinpartak daude hegaka